

Atzerri gaien inguruko galderarik ohikoenak

Preguntas más frecuentes sobre extranjería

Les questions les plus fréquentes sur l'extranéité



2009

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

Inmigrazioa - Inmigración - Immigration

Atzerri gaien inguruko galderarik ohikoenak

EWA
EUSKAL SINDIKATUA

AURKIBIDEA

– Aurkezpena	6
– Langile atzerritarren eskubideak	7
– Nola eskuratzen dira paperak?	9
– Adingabekoak	15
– Nola berritu behar da baimen bat?	16
– Egoitza-baimen iraunkorra	18
– Familien berrelkartzea	19
– Europako Batasuneko biztanleen eta haien senitartekoen erregimena .	21
– Baimen-aldaketak	23
– Non aurkeztu behar dira erreklamazioak?	26

OHARRA: Betekizun hauek aldatu egin daitezke herrialde batetik bestera. Beraz, komeni da immigranteei laguntzeko zerbitzuei, elkarteei edo sindikatuari galdetzea.

AURKEZPENA

Azken urteetan, inmigrazio arloa sortuz geroztik, ELA saiakera berezia egiten ari da etorkinen errealitatea bere ekintza sindikalean barneratzeko. Lau lan ildo jorratzen dira modu berezian: etorkinen erakunde eta elkarteekin harremana, egoeraren inguruko salaketa publikoa, sindikatu barneko sentikortzea eta heziketa.

Sindikatuan, etorkinen lan eta bizi baldintzak hobetzeko gure ahaleginean, sarritan aurretiko ezagutza eta prestakuntza berezia eskatzen duten egoe-rekin aurkitzen gara.

Lan munduko baldintza eskasei aurre egiteaz gain, etorkinak beraien egote eta lan baimena bera ere baldintzatzen duten amaigabeko tramite eta kontrolei aurre egin beharrean aurkitzen dira.

Sarritan ELAk salatu duen moduan, egoera honek pertsona hauen gaineko babesa bereziki urratzen du eta "parerik gabe" geratzeko arriskuaren mehatxupean bizitzera behartzen. Oso kontutan hartzekoa da beraz egoera administratiboak beraien bizi eta lan baldintzetan duen eragin zuzena.

Hori dela eta, bide horretan gure lana erraztuko duten baliabide eta formazio materiala eskuragarri izatea oinarrizkoa da zapalduenen artean aurkitzen diren pertsona talde honi gure babesa ematerako orduan.

Helburu horri erantzuten dio aurrez argitaratutako "Atzerri gaien inguruko galderarik ohikoenak" dokumentua berriro ere, eguneratu eta osatuta, zure eskura jartzeak. Bertan langile etorkinei eragiten dieten galdera eta zalantza ohikoenak jasotzen dira.

Mitxel Lakuntza, Emérita Cuéllar
Inmigrazio Arloa

LANGILE ATZERRITARREN ESKUBIDEAK

PAPERIK EDUKI EDO EZ, ESKUBIDE HAUEK DITUZTE ATZERRITAR GUZTIEK:

- ✓ SINDIKATZEKO ESKUBIDEA
- ✓ BATZARTU ETA MANIFESTAZIOAK EGITEKOA
- ✓ EZINBESTEKO HEZKUNTZA JASOTZEKOA
- ✓ DAGOZKIEN PRESTAZIO SOZIALAK JASOTZEKOA (*Nafarroan, sei hilabete-ko errolda-antzinatasuna behar da; EAEn, urtebetekoa*).
- ✓ ERAGITEN DIETEN ADMINISTRAZIO-EGINTZAK ERREKURRITZEKOA
- ✓ BABES JUDIZIAL ERAGINKORRA JASOTZEKOA

DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOA JASOTZEKOA; ZUZENBIDEKO PROFESIONAL BATEK ARTATUA IZATEKOA (familiaren errenta 13.900 eurotik gorakoa ez bada, betiere).

Eskubide horiez baliatzeko, askotan, immigranteak **ERROLDATU egin behar du, bizi den udalerrian**. Horretarako, udaletxera jo behar du, etxejabearekin edo alokairu-kontratuaren titularrarekin. Erroldatuz gero, bizi den udalerriko biztanle, herrikide, bihurtzen da immigrantea.

Erroldatuz gero, udalerrri jakin bateko herritar bihurtzen dira immigranteak; **hortik aurrera, osasun-txartela eska daiteke, senitartekoentzako heziketa, eta gizarte-zerbitzuekin harremanetan jarri**.

PAPERAK LORTUZ GERO, ESKUBIDE HAUEK GUZTIAK ESKURATZEN DITU IMMIGRANTEAK:

- ✓ Udalean eta gainerako administrazioetan ENTZUNA IZATEKO ESKUBIDEA.
- ✓ ETXEBIZITZA-LAGUNTZAK, bertako nazionalitatea duten gainerako herritarren parekoak.
- ✓ FAMILIAKO KIDEAK BERRIRO ELKARTZEKOA (senarra edo emaztea, bananduta egon ezean; adingabeko seme-alabak edo ezgaiak, ezkongabeak betiere; gurasoak, bere kargura baldin baditu, eta atzerritar gisako legezordezkaritza duten adingabeak edo ezgaiak).

ERROLDATU GABE ERE JASO DAITEZKE PREMIAZKO ZERBITZU MEDIKOAK ETA HAURDUNTZA, ERDITZE ETA ERDITZE ONDOKOAK.

ATZERRITARRA LANEAN ARI BADA

- ✓ PAPERIK EZ BADAUKA ERE, BALIOZKOA DA LAN-HARREMANA.
 - Langileen Estatutuan jasotako laneko eskubideak kasurik gehienetan dagozkie immigranteei, baita egoera erregularizatu gabe dutenei ere.
 - Bidegabeki kaleratu dutela frogatzen badu erregularizatu gabeko langile batek, eskubidea du dagokion kalte-ordaina eta langabezia-subsidioa jasotzeko.
 - Azpimarratzekoa da oso zaila dela lan-harremana frogatzea egoitza- eta lan-baimenik, eta, ondorioz, idatzizko lan harremanik ez badago.
- ✓ BALDINTZA JAKIN BATZUK BETEZ GERO, GIZARTE SEGURANTZATIK ZENBAIT PRESTAZIO JASOTZEKO ESKUBIDEA DAGO. GALDETU.

EUSKAL SINDIKATUA

NOLA ESKURATZEN DIRA PAPERAK?

"EGOERA BEREZIAK" DERITZENAK

Errotzea da egoitza-baimena eskuratzeko modurik ohikoena.

Hiru dira errotze-modalitateak. Horietako edozeinen bidez egoitza-baimena eskuratzeko, zenbait baldintza bete behar dira.

LANEKO ERROTZEA

- Estatu espainiarrean bi urteko egoitza irregularra egiaztatzea.
- Aurrekari penalik ez izatea.
- Enpresa batean edo batzuetan urtebeteko lan-harremana izan dela frogatzea. Horretarako, Lan Ikuskaritzako agiri bat behar da, edo Lan Arloko Epaitegikoa.

ERROTZE SOZIALA

- Egiaztatzea estatu espainiarrean hiru urteko egoitza irregularra egina duela.
- Enpresaburuak eta langileak sinatutako urtebeteko laneko aurrekontratua edukitzea.
- Ohiko bizileku duen herriko udalaren txosten batek egiaztatzea immigrantearen errotze soziala. Ez dago txosten horren beharrik zuzeneko familia-loturak egiaztatuz gero (gurasoak, ezkontideak, seme-alabak) espainiar nazionalitatea duen jendearekin edo egoitza-baimena dutenekin.
- Aurrekari penalik ez izatea.
- Pasaporte osoaren fotokopia aurkeztea (lau hilabetetik gora eraman behar ditu indarrean pasaporteak).
- Ziurtagiri mediko ofizial bat aurkeztea.

Udalak gomenda dezake lan-kontratuaren baldintza kentzeko immigranteari. Kasuz kasu begiratu.

ERROTZE FAMILIARRA

- Espainiar nazionalitatea galduko jatorrizko aurrekorik izatea.
- Saharar jatorriko immigranteen kasua kontsultatu.

KASU GUZTIETAN, IMMIGRANTEAK EZ DU AURREKARI PENALIK IZAN BEHAR, EZ ESTATU ESPAINIARREAN EZ JATORRIZKO HERRIALDEAN.

KASU GUZTIETAN, URTEBETEZ LAN EGIN DAITEKE TXARTELAREKIN BAIMENA EMANEZ GERO.



GALDERARIK OHIKOENAK

1.^a.–Nola frogatu hiru urte daramatzala hemen bizitzen?

Ezinbestekoa da erroldatzea eta beste zeinahi agiri ofizial (aireportuko polizia-zigilua, osasun-txartela, txosten medikoak...). Balio dute, gutxiago bada ere, beste dokumentu-mota batzuek ere: hegazkin-txartelak, diru-bidalketak, aurrezki-txartelak, alokairu-kontratuak, era guztietako ikastaroak, sindikatu eta beste elkarte batzuetako kide izateak...

Gogoratu "egoitza iraunkorra" eskatzen duela legeak; beraz, eskariaren aurreko hiru urteei buruzko dokumentu guztiek argi adierazi behar dute eskatzailearen izena eta agiriaren egite-data.

Azken hiru urteetan herrialdetik kanpora 120 edo 90 egun egiteak (errotze sozialari edo laboralari dagozkion epeak, hurrenez hurren) ez du eragozten baimena jasotzea. Normalean, epe horietatik gora herrialdetik kanpora ez egotea eskatzen zaio immigranteari.

2.^a.–Zer kontratu-mota aurkeztu behar da?

Aski da aurrekontratu bat, baina hilabeteren buruan irmo bihurtzeko konpromisoa baldin badago, administrazioak baimena eman duenetik zenbatzen hasita. Urtebeteko iraupena izen behar du, gutxienik, kontratuak, eta dagokion soldatak ez du izan behar Lanbide arteko Gutxieneko Soldata baino txikiagoa.

Edonolakoa izan daiteke kontratua (*aldi baterakoa, mugagabea, trebakuntzako...*). Galdetu egin behar da jarduera batzuetan (*etxe-zerbitzuan, adibidez*) soldata baterako kontratu bat baino gehiago aurkez daitekeen.

Udalak gomenda dezake lan-kontratuaren baldintza kentzeko immigranteari, baina ongi adostu behar dira gauzak.

Bestalde, norberaren konturako jarduerak ere aurkez daitezke.

3.^a.–Zer da udalaren errotze-txostena?

Txosten horren bidez adierazten dute udaleko gizarte-zerbitzuek zenbaterainoko gizarteratze-maila duen immigranteari. Hor aipatzen da sindikaturen bateko kide den, zer irabazpide dituen, zer hizkuntza dakizkien, zer ikastaro egin dituen, gobernuz kanpoko erakunderen bateko kide den, zer familia-egoeratan dagoen...

Oso garrantzizkoa: eskaera egin aurretik, immigranteari erroldatuta dagoen auzo edo herriko gizarte-langilearekin hitz egin behar da, hari baitagokio txostena idaztea.

4.^a.–Nola egiten dira aurrekari penalik ezaren ziurtagiria eskatzeko izapideak?

Lehenik eta behin, begiratu behar da immigrantearen jatorrizko herrialdea Hagako Itunaren sinatzaile den edo ez. Ez bada, HAGAKO OHARRA dioen zigilu batekin bidali behar du ziurtagiria jatorrizko herrialdean hura izapidetzeaz arduratzen denak. Aski da zigilu hori agiria legezkoa izateko estatu espainiarrean.

Hagako Itunaren sinatzaile ez bada herrialdea, zigilu hauek behar ditu agiriak:

- Jatorrizko herrialdeko epaileren baten zigilua.
- Jatorrizko herrialdeko atzerri ministerioaren zigilua.
- Dagokion jatorrizko herriko Espainiako Kotsularen Bulegoko zigilua.
- Espainiako Madrilgo Atzerri Ministerioko zigilua.

JUDIZIALA DA ERROTZE SOZIALA EGIAZTATZEKO ZIURTAGIRIA, EZ POLIZIARENA.

5.^a.–Nola frogatu lanean jardundako urteko laneko errotzea?

Bi bide daude horretarako:

- Urraketa ezartzen duen Lan Ikuskaritzaren Akta berresten duen ebazpena (langileak salaketa jarri eta gero ematen da).
- Dagokion Lan Arloko Auzitegiaren ebazpena. ***Ez du balio Zerbitzu Autonomikoko Kontziliazio Aktak.*** Jarritako salaketak 6.000 euroko isuna, gutxienez, dakarkio enplegu-emaileari (legea aldatzen ez bada), gehi sortutako eta Gizarte Segurantzari ordaindu gabe utzitako kuotak.

6.^a.–Zer gertatzen da kanporatze-agindua ezartzen badiote immigrante bati?

Bereizi egin behar da kanporatze-agindua irmoa den edo ez.

Kanporatze-erabaki irmoa: horrelakoetan, zaila da egoera, poliziak noiznahi gauzatu baitezake kanporatze-agindua.

Kanporatze-erabaki ez-irmoa: horrelakoetan, immigranteei laguntzeko elkarteren batekin harremanetan jartzea komeni da. Nolanahi dela ere, agindua indarrik gabe uzten saiatu behar dugu. Galdetu non eman zen kanporatze-agindua.

7.^a–Errotze soziala dela eta immigrante bati paperak ematen badizkiote, zer egin behar da?

Egoitza-baimenari eta lan-baimenari dagozkien tasak ordaindu. Enplegu-emaileak ordaindu behar ditu tasak (*ez da hori gertatzen normalean*), eta ezin dira langilearen soldatetik kendu. Legeak baliogabetzat jotzen du enplegu-emaileen eta langilearen arteko hitzarmena baldin eta tasak langileak ordaindu behar dituela badio.

Hilabeteko epea du enplegu-emaileak langileari Gizarte Segurantzaren alta emateko; horrela ez egitekotan, lan egiteko baimena galdu egiten du langileak.

Dagokion Atzerriartasun bulegoan aurkeztu administrazioak gutun bidez (etxera bidaltzen du) eskatzen duen dokumentazioa: tasa-ordainketa, Gizarte Segurantzako alta, argazkiak, pasaporte eta errolda-agiria. Gutun horretan iristen da behin-behineko baimena ere.

Enplegu-emaileak langileari Gizarte Segurantzaren alta eman orduko sartzen da indarrean hemen bizi eta lan egiteko baimena.

HASIERAKO EGOITZA-BAIMENA ESKURATZEKO BESTE BIDE BATZUK

- ✓ **Familiako indarkeriaren biktima izatea.** Urruntze-aginduarekin batera aurkez daiteke eskaria, baina erasotzailearen aurkako kondena-epaia behar da espedienteak aurrera egin eta epaia aldekoa izateko. Salaketa erretiratzen bada, ez du aurrera egiten. Tratu txarreatik salaketa jarri ondoren, Polizia Nazionalak kanporatze-espedientea ireki ohi du; ez, ordea, Nafarroako Foru Poliziak eta Ertzaintzak.
- ✓ **Gaixotasun larria izatea.** Zerbitzu mediko espezializatuek egiaztatua behar du izan gaitzak, dagokion epean hartua, immigrantearen jatorrizko herrialdean tratatu ezinezkoa eta artapenik jaso ezean osasuna edo bizia arriskuan jartzen diona.
- ✓ **Arrazismoa edo xenofobia astungarri dituen delitu baten biktima izatea, edo langileen eskubideen aurkako delitu batena.** Epaia ezinbestekoa da.
- ✓ **Nazioarteko babesa behar izatea.**
- ✓ **Administrazio, polizia, aparatu judizial edo ministerio fiskalarekiko lan-kidetza.**
- ✓ **Jatorrizko herrialdean bisa eskatzeko aukerarik eza, immigrantearen edo haren familiaren segurtasuna arriskuan izan litekeela eta.**
- ✓ **Interes publikoa.**
- ✓ **Lan-ikuskaritzak hala gomendatzea.**

EGOERA HORIETAN GUZTIETAN, EGOITZA-BAIMENA EMATEN DA, EZ LANEKOA, NAZIOARTEKO BABESA DUTENEI IZAN EZIK.

EGOITZA-BAIMENAREKIN BATERA EDO HORI ESKURATU ONDOREN ESKA DAITEKE LAN-BAIMENA.

DENA DELA, AUKERA GUZTIAK BEGIRATU

BAIMENA UKATUZ GERO, BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA AURKEZ DAITEKE, EDO, BESTELA, ZUZENEAN JO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIETARAKO EPAITEGIRA.

ADINGABEKOAK

Bi egoera bereizi behar dira:

Estatu espainiarrean jaiotako umeak

Baldintzak:

- ✓ Gurasoetako batek, gutxienik, egoitza-baimena izatea.
- ✓ Jaiotza-ziurtagiria.
- ✓ Gurasoen bizibideak.
- ✓ Adingabeak osasun-artapena estalita duela egiaztatzen duen egiaztagiria.

Hemendik kanpo jaiotako umeak

Baldintzak:

- ✓ Gurasoetako batek, gutxienik, egoitza-baimena izatea.
- ✓ Bi urteko egoitza, egiaztatua (ahal dela, errolda eta guzti).
- ✓ Gurasoen bizibideak.
- ✓ Bi urtez matrikulatuta egon dela eta, eskolara joateko obligazioa baldin badu, erregulariki joaten dela egiaztatzen duen eskola-agiria.
- ✓ Adingabeak osasun-artapena estalita duela egiaztatzen duen egiaztagiria.

Gurasoetatik inor dokumentatuta ez egon arren, adingabekoaren dokumentazioa eska daiteke.

OHARRA: Gurasoak Espainian bizi ez badira eta adingabeek tutoretza edo ordezkartzarik badute, kontsultatu.

NOLA BERRITU BEHAR DA LAN-BAIMENA?

LAU EGOERA HIPOTETIKO HAUEK DITUGU

1. Txartela ematea ekarri duen lan-harremanarekin jarraitzea.
2. Gutxienez sei hilabeteko lanaldia izatea, egoera hauetakoren batean:
 - Baimena eman zitzaion jarduera hartan bertan.
 - Edo beste enplegu-emaile batekin lan-kontratua izenpetzea.
 - Edo kontratua berritzean alta emanda egotea.
 - Edo lan-kontratu bat edo lan-eskaintza bat izatea indarrean.

Kontuan hartzekoak:

- ✓ Kontuz ibili hasierako lan-txartelekin (ez dute inongo mugarik), baimena emateko jarduera aipatzen baitu.
- ✓ Ez du kotizazio-epea aipatzen (kontuz lanaldi partzialeko kontratuetako prestazio gisara zenbatutako egunekin), jarduera baizik. Langabezia-subsidioa jasotzea ez da sartzen atal horretan.
- ✓ 1996ko Araudiak ez bezala, ez du aipatzen Ezintasun Iragankorreko subsidioa kasu jakin batzuetan. Kontuz subsidio horren kobrantzarekin lan-harremana etenez gero, ez baitago kotizatzeko obligaziorik.

3. Gutxienez hiru hilabeteko jarduera izatea eta baldintza hauek betetzea:

- Langileari ez dagozkion arrazoiengatik eten izana lan-harremana.
- Enplegu bila aktiboki jardun izana.
- Indarrean dagoen kontratua izatea.

Kontuan hartzekoak:

- ✓ Kaleratzeak edo kontratuaren amaierak eragiten dute lan-harremanaren amaiera egiaztatua.
- ✓ Enplegu-bilaketa aktiboa egiaztatzeko, INEM edo autonomia-erkidegoetako enplegu-zerbitzuetan eman behar da izena, edo gizarteratzeko eta lanbideratzeko zenbait programatan.

4. Kotizaziopeko langabezia-prestazio bat jasotzea, edo gizarteratzeko edo lan-bideratzeko diru-prestazio bat, hura jasotzea dagokion epean.

Kontuan hartzekoak:

- ✓ Langabezia-subsidioa, aldi baterako ezintasunagatikoa eta gizarteratzeko errenta aktiboa aipatutako prestazioen baliokide dira.
- ✓ Beste laguntza batzuk ere (EAEko gizarte-larrialdietarako laguntzak, Nafarroako oinarrizko errenta...) baliokide dira.
- ✓ Probintzia bakoitzean galdetu ea prestazio horiek irauten duten eperako berritzen duten txartela.

EZEZKO ERANTZUNA JASOZ GERO:

- ✓ GORAKO HELEGITEA –**NAHITAEZKOA**– AURKEZ DAITEKE, HILABETEKO EPEAN; EDO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIA, BI HILABETEKO EPEAN, GORAKOA ATZERA BOTATZEN BADUTE.
- ✓ *Nafarroan eta EAEn*, BADAGO AUKERA EGOITZA-BAIMENA BAKARRIK BERRITZEKO BESTE BIZIBIDE BATZUK IZANEZ GERO. KASU KONPLEXUA DA HAU, ETA ALDATU EGITEN DA PROBINTZIA BATETIK BESTERA. BADA EZPADA, KONTSULTATU.

EGOITZA IRAUNKORREKO BAIMENA

Estatu espainiarrean bost urtez legez eta etenik gabe bizi izan direla egiaztatzen dutenei ematen zaie. Sei hilabete arteko gabeziek ez diote eragiten jarraitutasunari, betiere bost urteren buruan urtebetetik gorakoak ez badira.

Jarduera-mota guztietan aritzeko aukera ematen du, norberaren eta besteren kontura, eta bost urterako ematen da (berriztagarria).

Egoitza iraunkorreko baimena eskuratzeko beste zenbait bide:

- ✓ Kotizaziopeko erretiro-pentsio baten onuradun izatea.
- ✓ Ezintasun iraunkor absolutuko pensio baten onuradun izatea, edo kotizaziopeko baliaezintasun handi batena.
- ✓ Estatu espainiarrean jaioa izatea eta, adin-nagusitasunera iristean, eskaera egin aurreko hiru urteetan Espainian legez eta etenik gabe bizi izan dela egiaztatzea.
- ✓ Jatorriz espainiarrak izatea eta espainiar nazionalitatea galdu izana.
- ✓ Adin-nagusitasunera iristean, aurreko bost urteetan erakunde publiko baten zaintzapean egon izana.
- ✓ Dagozkien estatutuak aitortu ez zaizkien aberrigabeak edo errefuxiatuak izatea.

FAMILIAREN BERRELKARTZEA

Hasierako egoitza-baimena berritu zaienei onartzen zaie familia berrelkartzeko eskubidea. Probintzia batzuetan, txartelari urtebeteko iraupena geratzea exijitzen dute.

Senitarteko hauek dute berrelkartzeko eskubidea:

- ✓ EZKONTIDEAK, betiere ez badaude legez edo egitez bananduta (*ezkontide bat baino gehiago ezin da berrelkartu, inongo kasutan*).
- ✓ BERE EDO BERE EZKONTIDEAREN SEME-ALABAK, adoptatutakoak barne direla, adingabeak edo adinez nagusi ezinduak, betiere ezkonduak ez badira.
- ✓ HEMEZORTZI URTEZ BEHEKOAK edo ezinduak, atzerriko egoiliarra haren legezko ordezkaria bada.
- ✓ BERE EDO BERE EZKONTIDEAREN AURREKO AHAIDEAK, bere kargura baldin badaude eta egoitza baimentzeko arrazoirik baldin badago (*prozesu konplexua izan ohi da*).

BALDINTZAK

- ✓ Behar adinako diru-sarrera izatea (errenta-aitorpena, banku-kontuak...), kalkululu-formulak, irabazi garbiak ken hipoteka- edo alokairu-gastuak. Oso balorazio subjektiboak egin ohi ditu administrazioak: batzuetan, lanbide arteko gutxieneko soldata hartzen du oinarri; beste batzuetan, eragin anitzeko errenta-adierazle publikoa...
- ✓ Etxebizitza egokia izatea, kontratu eta guzti (udaleko gizarte-zerbitzuek edo, bestela, notario batek egiaztatu behar dute).
- ✓ Berrelkartu nahi den pertsonarekiko familia-lotura egiaztatzeko agiriak edo, hala badagokio, lege-mendekotasunari eta ekonomikoari dagozkionak.

FAMILIA BERRELKARTZEKO BALDINTZAK BETETZEAK EZ DU ESAN NAHI HORRETARAKO BAIMENA BETI EMANGO DENIK.

Dagokion atzeritartasun-bulegoan dokumentazioa aurkeztu ondoren, urrats hauek ditu prozedurak:

1. Dagokion gobernuaren ordezkariak edo azpiordezkaritzak familia-berrelkartzegatiko egoitza-baimena (behin-behinekoa) ematea.
2. Baimen horren berri ematea berrelkarketa-eskatzaileari, Atzerri Ministerioari eta berrelkartzekoa den senitartekoa bizi den eremuko kontsul-bulegoari.

3. Berrelkartzekoa den senitartekoak bisa eskatzea bere bizilekutik hurbilen daukan Espainiako kontsul-bulegoan. Bi hilabeteko epea du horretarako, Espainian duen senitartekoari berrelkartzeko behin-behineko baimena eman zaiola jakinarazi zitzaionetik zenbatuta.
4. Bisa tramitatzen ari dela, litekeena da kontsul-bulegoak eskatzaileari deitzea, elkarrizketa pertsonal bat egiteko.
5. Bisa jaso ondoren, hiru hilabeteko epea du eskatzaileak Espainiara joateko, eta, hara iristen denetik, hilabetekoa atzerritar nortasun-agiria eskatzeko (berak eskatu behar du).

OHAR OSO GARRANTZITSUA:

- ✓ BISA EMATEKO PROZEDURA EZ DA HEMENGOA BEZALAKOA.
- ✓ BISA EMATEKO OBLIGAZIORIK EZ DU KONTSULETXEAK.

EWA
EUSKAL SINDIKATUA

EUROPAKO BATASUNEKO IMMIGRANTEEN ETA HAIEN SENITARTEKOEN ERREGIMENA

- ✓ Europako Batasuneko (EB) herritarrek estatu espainiarrekoen eskubide eta obligazio berberak dituzte.

EB-KO ERREGIMENERA ATXIKITZEKO ESKUBIDEA DUTEN SENITARTEKOAK

EBko herritarren senitartekoak bi multzo hauetan sailkatzen dira:

- ✓ HERRITAR ESPANIAR BATEN atzerriko senitartekoak. 4/2000 Lege Organikoaren Araudia aplikatzen zaie.
- ✓ Europako Batasuneko eta Europako Ekonomia Eremuko GAINERAKO ESTATUETAKO HERRITAR ATZERRITARRAK. 240/2007 Errege Dekretua APLIKATZEN ZAIE.

Herritar espainiar baten atzerriko zer senitartekok dute egoitza-baimena eskuratzeko eskubidea?

- ✓ EZKONTIDEAK, betiere ez badago legezko banaketa-hitzarmen edo -deklaraziorik.
- ✓ IZATEZKO BIKOTEAK, EBko eta EEEko kide den estatu bateko erregistro publiko bakar batean erregistratua badago.
- ✓ BERE ETA BERE EZKONTIDEAREN ONDORENGOEK, betiere 21 urtetik behekoak edo, adin horretatik gorakoak izanik, beste norbaiten kargura daudenak edo ezgaituak badira.
- ✓ EB-KO BIZTANLEAREN EDO HAREN EZKONTIDEAREN aurreko ahaideek edo bikotekideak (erregistratua).

EBko beste estatu bateko zer senitartekok dute egoitza-baimena jasotzeko eskubidea?

- ✓ EZKONTIDEAK, betiere legezko banaketa-hitzarmen edo -deklaraziorik ez badute.
- ✓ IZATEZKO BIKOTEAK, EBko estatu bateko erregistro bakar batean erregistro publikoan izena emana baldin badago (*erregistroko ziurtagiria, itzulia, konpultsatua edo argibideak erantsia*).
- ✓ EB-KO BIZTANLEAK HARREMAN IRAUNKORRA, BEHAR BEZALA FROGATUA, DUEN BIKOTEKIDEA (zuzenbideak onartzen duen edozein frogabidek balio du).

- ✓ BERE ETA BERE EZKONTIDEAREN ONDORENGOAK, 21 URTEZ BEHEKOAK eta bere kargu dituen edo ezgaituak diren hortik gorakoak.
- ✓ EB-KO HERRITARRAREN EDO BERE EZKONTIDE EDO bikotekide erregistratuaren AURREKO AHAIDEAK.
- ✓ EBko eta EEEko herritarren kargupeko BIGARREN AHAIDETASUN-MAILARAINOKO SENITARTEKOAK, zuzenekoak edo albokoak, odol-kidetasunezkoak edo kidetasunezkoak (anai-arrebak, koinatu-koinatak, bilobak, aitona-amonak).

EBko beste estatu bateko herritarren zer senitartekok dute lan-baimena jasotzeko eskubidea?

- ✓ EZKONTIDEAK, betiere ez badago legezko banaketa-hitzarmen edo -deklaraziorik
- ✓ IZATEZKO BIKOTEAK, EBko edo EEEko estatu bateko erregistro bakar batean erregistro publikoan izena emana baldin badago.
- ✓ 21 urtez beheko ONDORENGOEK.

Ez dute eskubiderik:

- ✓ Bere kargu dauden 21 urtetik gorako ezkontideek.
- ✓ Bere kargura bizi diren bere edo bere ezkontide edo bikotekide erregistratuaren zuzeneko aurreko ahaideak.

21 urtetik gorako ondorengoak eta aurreko ahaideak bere "kargupekotzat" joko dira baldin eta egiaztatzen bada egiten duten lana ez dutela aski euren mantenturako.

GARRANTZIZKO OHARRA:

Hirugarren herrialde bateko nazionalitatea duten herritar espainiarren aurreko ahaideei eskatzen zaizkien betekizunak eta prozedura-izapideak EBko eta EEEko beste herrialdeko batzuetako herritarren kargupean dauden EBz kanpoko aurreko ahaideei eskatzen zaizkienak baino askoz ere zorrotzagoak dira.

BAIMEN-ALDAKETAK

BALIZKO EGOERAK

1. BEHIN-BEHINEKO EGOITZA-BAIMENETIK EGOITZA-ETA LAN-BAIMENERA

Betekizunak:

- ✓ Urtebete eramatea behin-behineko egoitza-baimenarekin. Salbuespena: berrelkartutako senitartekoak edo gerora sortutako premialdiak. Ez zaie denbora-eperik eskatzen.
- ✓ Lan-eskaintzaren bat izatea.

2. ARRAZOI BEREZIENGATIKO EGOITZA-BAIMENETIK (ERROTZE SOZIALAGATIK, ADIBIDEZ) EGOITZA- ETA LAN-BAIMENERA

Betekizunak:

- ✓ Urtebete eramatea arrazoi bereziengatiko egoitza-baimenarekin.
- ✓ Lan-eskaintzaren bat izatea.
- ✓ Errotzea edo lan-baimena baldin bada abiapuntua, baimen-berritzea dela jotzen da.

3. IKASLE IZATETIK EGOITZA- ETA LAN-BAIMENA IZATERA

Betekizunak:

- ✓ Hiru urte eramatea ikasle gisara.
- ✓ Ikasketak aprobetxatu dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- ✓ Ez izatea jatorrizko herriko lankidetzaren edo garapen-programaren batekoa.
- ✓ Lan-eskaintzaren bat izatea.

Oso zabala da araudiaren artikulua. Ondo aztertu.

4. BESTEREN KONTURAKO LANGILE IZATETIK NORBERAREN KONTURAKORA, EDO ALDERANTZIZ

Baldintza orokorra: txartela berritzean egin behar da, edo jada berritutako batekin.

Besteren konturako jardueratik norberaren konturakora:

- ✓ Egiaztatzea txartela berritzeko eskubidea duela eskaria egitean.

- ✓ Norberaren konturako jarduera bideragarria izatea.
- ✓ Dagozkion baimen eta lizentzia administratiboak edukitzea.
- ✓ Trebakuntza profesionala eta, hala badagokio, elkargo profesionalen bateko kide izatea.
- ✓ Aurreikusitako inbertsioa egitea, nahikoa eta justifikatua.
- ✓ Egiaztatzea jarduerak ematen duela nahikoa bizibide.

Norberaren konturako jardueratik besteren konturakora:

- ✓ Lan-eskaintzaren bat izatea.
- ✓ Zergak eta Gizarte Segurantzako kuotak ordainduta izatea.

5. JARDUERA- EDO INGURUNE-ALDAKETA

Lehenbiziko baimenarekin egiten da, jarduera edo ingurune geografiko jakin batera mugatua badago. Lehen baimena eman zuenak eman behar du.

6. EB-KO HERRITAR EDO EB-KO HERRITAR BATEN SENITARTEKOEN BAIMENA IZATETIK EGOITZA- ETA LAN-BAIMENA IZATERA, EDO EB-Z KANPOKOENTZAKO EGOITZA- ETA LAN-BAIMENA IZATERA

Hirugarren herrialde bateko nazionalitatea duen herritarrak, EBko herritar baten senitartekoa, nazionalitatea galtzen badu (*heriotzagatik, banantzeagatik...*), prozedura bati jarraitu eta zenbait baldintza bete behar ditu egoitza-baimen edo egoitza- eta lan-baimen berriak eskuratzeko, baldin eta egoitza iraunkorreko baimenik ez badu.

Heriotzagatik baldin bada, dagokien agintariei jakinarazi behar zaie.

Ondoren, sei hilabeteko epea dute egoitza-baimena eskatzeko, eta atzerritarrei eskatzen zaizkien baldintza guztiak bete behar dituzte, bisarena izan ezik, betiere eskubidearen titularra hil aurretik familiako kide gisara bizi izan badira Espainian.

Dibortziorik, legezko banantzerik edo ezkontzaren edo erregistratutako bikote-erregistroaren baliogabetzerik izanez gero, dagozkien agintariei jakinarazi behar zaie.

Egoera hauetan segi daiteke egoitza-baimena edukitzean, sei hilabetez:


- Bikotea hiru urte, gutxienez, egon bada ezkontuta, horietako bat Espainian bizitzen.
- Seme-alaben zaintza EBz kanpoko ezkontidearen esku geratzen bada.

- Egiaztatzen bada, Ministerio Fiskalaren babes- agindu edo txosten baten bidez, EBz kanpoko ezkontidea familiako indarkeriaren biktima izan dela ezkontuta egon den garaian.
- EBz kanpoko herritarrak seme-alabarik txikiena bisitatzeko eskubidea duela dioen ebazpen judizialik baldin badago, edo alde biak ados badatoz horretan.

Sei hilabete horiek igaro eta, egoitza-baimen iraunkorra eskuratu ezean, egoitza-baimena eskatu behar du eta atzerritar orori eskatzen zaizkion baldintzak bete, bisarena izan ezik.

Hirugarren baldintzari dagokionez (*familiako indarkeria*), ebazpen judiziala iritsi arte luza daiteke sei hilabeteko epea.

EBz kanpoko herritarrak lan-kontratua baldin badu eta dibortziatu egiten bada, edo legez banandu..., hilabeteko epea du egoera berria jakinarazteko eta EBko herritar baten senitarteko-txartelaren ordezkari EBz kanpoko herritarren egoitza-eta lan-baimena eskatzeko.



NON EGIN BEHAR DIRA ERREKLAMAZIOAK?

ERREKURTSO-ERREGIMENA

ADMINISTRATIBOAK:

HASIERAKO BAIMENAK - BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA, HAUTAZKOA. HILABETEKO EPEA - KONPUTUA.

ERABAKITZEN DUEN ORGANOA: EBAZPENA ARGITARATU ZUEN BERA.

BERRITZEAK ETA ALDAKETAK: GORAKO ERREKURTSOA, NAHITAEZKOA. HILABETEKO EPEA KONPUTUA.

ERABAKITZEN DUEN ORGANOA: HIERARKIARI DAGOKIONAK.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN, GOBERNU-ORDEZKARIAK.

NAFARROAN, DAGOKION MINISTROAK.

JUDIZIALAK:

LEHEN AUZIALDIAN: ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN EPAITEGIAN.

PROZEDURA LABURTUA. EPEA:BI HILABETE.

BIGARREN AUZIALDIAN: APELAZIOA justizia-auzitegi goreneko administrazioarekiko auzitegiko aretoan.

EPEA: 15 EGUN EPAIA PLAZARATUZ GEROZTIK.

OHAR OSO GARRANTZIZKOA: BISARIK EMAN EZEAN, MADRILGO JUSTIZIA-AUZITEGI GORENA DA ESKUMENDUN ORGANOA, AUZIALDI BAKARRERAN.

**Konfederazioa
Egoitza nagusia**

Barrainkua, 13
Apdo. 1.391
48009 Bilbao
Tel.: 94 403 77 00
Fax: 94 403 77 77
Fax Prentsa: 94 403 77 66

Eskualdeak

A R A B A

Gasteiz

01005 Vitoria-Gasteiz
Manuel Iradier, 25
Tel.: 945 15 80 76
Fax: 945 14 10 74

01200 Agurain
Fueros, 27
Tel.: 945 31 20 26
Fax: 945 30 18 75

01320 Oion
Nafarroa Etorbidea, 31 bajo
Tel.: 945 62 24 40
Fax: 945 62 24 43

B I Z K A I A

Bilbo

48009 Bilbao
Barrainkua, 13
Tel.: 94 403 77 00
Fax: 94 403 77 11

Ibaizabal-Nerbioi

1400 Laudio
Herriko Plaza, 4, 1.º C
Tel.: 94 403 65 45
Fax: 94 403 65 46

48970 Basauri
Antonio Fernández, s/n
Tel.: 94 405 58 88
Fax: 94 405 58 68

48960 Galdakao
Muguru, 8 entrepl.
Tel.: 94 400 57 57
Fax: 94 400 57 58

48140 Igorre
Sabino Arana, 22, lonja
Tel.: 94 631 54 58

Ezkerraldea- Kadagua

48902 Barakaldo
Gernikako Arbola, 35-38
Tel.: 94 418 02 96
Fax: 94 418 93 17

48980 Santurtzi
Maestro Calle, 1, bajo
Tel.: 94 493 56 59
Fax: 94 493 62 96

48860 Zalla
Pl. Carolina Renobales, 7, bajo
Tel.: 94 667 02 88
Fax: 94 667 17 97

Eskumaldea

48930 Areeta
Areetako etorbidea, 2
Tel.: 94 602 04 50
Fax: 94 602 04 20

48160 Derio
Txorierriko Etorbidea, 9
Tel.: 94 404 31 13
Fax: 94 404 31 12

48100 Mungia
Herri Bide, 8, entrepl.
Tel.: 94 674 00 16

Gernika-Durango

48200 Durango
Askatasun Etorbidea, 5.
Apdo. 183
Tel.: 94 621 76 80
Fax: 94 621 76 81

48370 Bermeo
Aurrekoetxea, 9, bajo
Tel.: 94 688 05 07

48300 Gernika
Urkieta, 9, 1.º izda.
Tel.: 94 627 00 53
Fax: 94 625 60 09

48700 Ondarroa
Artabide, 12, 1.º C
Tel.: 94 683 25 15
Fax: 94 613 41 27

48260 Ermua
Zubiaurre, 36, entrepl.
Tel.: 943 17 60 15

G I P U Z K O A

Donostia

20014 Donostia
Consulado, 8, behea Apdo. 971
Tel.: 943 00 50 00
Fax: 943 00 50 01

Urola-Kosta

20730 Azpeitia
Arana Goikoa, 1-2-3, bajo
Tel.: 943 81 34 46
Fax: 943 15 09 57

20800 Zarautz
Bizkaia kalea, 8
Apdo. 282
Tel.: 943 00 05 28
Fax: 943 00 05 29

20750 Zumaia
I. Zuloaga plaza, 1, 3.º B
Tel.: 943 86 01 01

Deba

20500 Arrasate
Otalora Lizentziatua, 24
Tel.: 943 79 45 09
Fax: 943 79 68 01

20570 Bergara
Ibargarai, 26-30, behea
Tel.: 943 76 43 01
Fax: 943 76 13 39

20700 Eibar
Bidebarrieta, 30, behea
Tel.: 943 82 04 42
Fax: 943 82 06 12

20870 Elgoibar
Rosario, 25, 2.º
Tel.: 943 74 42 78

20560 Oñati
Euskadi Etorbidea, bajo, 3-4
Tel.: 943 08 25 00
Fax: 943 08 25 01

20830 Mutriku
Almirante Gaztañeta, 1.º
Tel.: 943 60 32 38

Oria Goierri

20200 Beasain
Juan Iturralde, 9, 1.º
Tel.: 943 08 61 40
Fax: 943 08 61 41

20120 Hernani
Argarain, 3, behea,
Antziola Auzoa
Tel.: 943 33 64 64
Fax: 943 33 64 68

20160 Lasarte
Zumaburu, 5 - trasera
Tel.: 943 57 16 44
Fax: 943 57 12 61

20230 Legazpi
Aizkorri Kalea, 1, 1.º A
Tel.: 943 73 18 18
Fax: 943 73 18 18

20400 Tolosa
San Francisco, lb. 13
Tel.: 943 69 83 14
Fax: 943 69 82 41

20700 Urretxu
Labeaga, 33, behea
Tel.: 943 03 63 91
Fax: 943 03 67 65

Oarso-Bidasoa

20100 Errenteria
Pza. Koldo Mitxelena, 2, bajo
Tel.: 943 00 01 13
Fax: 943 00 01 14

20302 Irun
Paseo Colón, 27, 1.º
Tel.: 943 63 84 70
Fax: 943 63 84 71

31780 Bera
San Esteban, 13, bajo
Tel./Fax: 948 63 07 92

N A F A R R O A

Iruñea-Pamplona

31004 Iruñea-Pamplona
Iturralde y Suit, s/n-fte. n.º 10
Tel.: 948 00 79 30
Fax: 948 00 79 59

31800 Altsasu
La Paz, 3, Entr.
Tel.: 948 46 73 38
Fax: 948 56 73 07

31780 Bera
San Esteban, 13, bajo
Tel./Fax: 948 63 07 92

31591 Corella
Urb. San Juan, 1, bajo
Tel.: 948 40 10 72

31200 Lizarra-Estella
Fray Diego, 13 - bajo
Tel.: 948 54 67 70
Fax: 948 55 58 87

31350 Peralta-Azkoi
Avda. La Paz, 9-1º izda.
Tel.: 948 75 10 17
Fax: 948 75 17 11

31570 San Adrián
Ctra. de Estella, 32, bajo
Tel.: 948 69 61 59

31400 Sangüesa
Mediavilla, 4
Tel.: 948 43 01 08

31300 Tafalla
Plaza Cortes, 3 bajo
Tel./Fax: 948 70 16 60

31500 Tudela
Fernando Remacha, 4, 1.º
Tel.: 948 02 62 02
Fax: 948 02 62 03

31580 Lodosa
Paseo Central, s/n.
Tel. 948 69 42 12